


# 1.000

## 1.000. ZENBAKIRA IRITSI DA NOAUA

1996. urtetik hona, Usurbilgo etxe guztietara heldu da herri aldizkaria / GEHIGARRI BEREZIA




ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

**Elur Zaldia: "Munduko Kopan parte hartzeko aukera izan dut" / 08**




NOAUA

**Zubietarrak datorren astean murgilduko dira jai-giroan / 11**



NOAUA

**Uda partean ere, garbigune mugikorra auzoz auzo ibiliko da / 15**



DAVID HERRANZ

**Maialen Lujanbiok 'rr-6-erre(AH)ala' emanaldia eskainiko du Aginagan / 22**

# edaritegia BORDATXO

Pintxo bereziak  
Bokatak  
Plater konbinatuak

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



## MABIOK

FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia inbasiboetan  
eta eskuzko terapietan adituak  
Lesio erreadaptazioa • Diatermia • Ariketa terapeutikoa




mabiok\_fisioterapia

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB  
T. 608 671 925 / 943 372 658  
[mabiokfisioterapia.com](http://mabiokfisioterapia.com)

# ARATZ

## zabaleta anaiak

1989tik



*Gure lehentasuna gure ekoizleak eta bertako produktuak bultzatzea da*



·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak  
Igara Bidea, 15, Donostia      erreserbak: 943 21 92 04

# Emozio handiko ikuskizun herrikoia

Emozio handiko ikuskizun herrikoia izan zen Jon Maiak eta bere taldeak iragan ostiral gauean frontoian eskaini zue-na. Sortzaile zumaiarrak aurrez gogorarazi moduan, herri proposamen bat zekarren 'Kantu berri bat gara' emanaldiak, usurbildarrak bidelagun eta parte hartzaile aktibo bilakarazi zituena. Tokikotik ukitu nabarmena izan zuen hain zuzen Maiak herri honen izaera aitzindaria nabarmendu zuen ikuskizunak. Orbeldi dantza taldearen saioaz gozatu ahal izan genuen. Sorterri ezberdinetako herrikideek ere hitza hartu eta abestu zuten.



'Kantu berri bat gara' ikuskizuneko parte hartzaileak, saioaren amaieran, frontoiko ohol-tza gainean.

## Garbigune mugikorra, Kalezarren

Uztailaren 18tik aurrera, garbigune mugikorra Kalezarren izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarikgabe. Uztailaren 25ean garbigune hau Usurbilgo kaxkora eramango dute.

## 1950. urtean jaio zirenei deia

Datorren urtean 75 urte bete-ko dituzten herrikideak bil-tzeko asmoa dute. Parte har-tu nahiko luketen guztiek in-hartuemanetan jarri nahi dute. Horregatik, bi telefono zen-bakiotara deitzeko gonbita egin die-te 1950ean jaio-takoei: 645 736 726 / 678 398 852.

## Hurrengo odol-ematea, irailaren 2an

Iraileko lehenengo astelehe-nean, 16:30-20:10 artean, Uda-rregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola eman nahi dutenek, dei dezatela irailaren 2an ber-tan telefono zenbaki honeta-ra: 943 007 884.

## Hurrengo aldizkaria irailaren 6an plazaratuko dugu

Datorren astean ez da NOAUA-rik izango. Udako oporrak tar-teko, irailaren 6an plazaratuko dugu hurrena. Ordurako oha-rrik baduzue irailaren 2a baino lehen helarazi ditzakezue:

- erredakzioa@noaua.eus
- 943 360 321.
- NOAUaren egoitzan bertan.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkartea  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkari koordinatorra:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



AINHOA AZPIROTX EIZMENDI

## Mila zer...!!?



"Mila aitzakia edo bakar bat topa daitezke 1.000 zenbakia borobil bihurtzeko eta ospakizun bilakatzeko".

**M**ilagarrena omen da. Bai, milako langara iritsi gara. Baina, mila zer? Usurbilen, mila zer?

1.000 metroko desnibelik ez daukagu kaxkotik Andatzara, baina mila pauso baino gehiago egingo ditugu gurutzerara edo buzoira iristerako. 1.000 pezetako billete berdea aspalditxo desagertu zen eta 1.000 eurokorik ez da existitzen. Azken hilabetetan euri asko egin du, baina 1.000 mm adina ez.

Elizako kanpandorreko erlojuak mila buelta baino askoz gehiago emanak ditu martxan jarritz zenez geroztik. Tik-tak, tik-tak, mila ordu gora, mila minututik gora eta mila segundo baino askoz gehiago. "40 minutuz mila taupada", kantatzen du Eñaut Elorrietak.

Mila ilargi bete baino gehiago egin ditu kanpan-

dorreak dema plazako 1.000 kg-tik gorako harriaren zaindari, eta baita lurreko milaka harri txikiren behatzaile ere.

Mila egunetik gora bizitu ditu 3 urtetik gorako edonork, eta baita mila eta bat gau baino gehiago ere. Mila urterik ez, ordea; horiek gehitxo dira bizidunontzat.

Sagardoa egiteko denboraldia iristen denean 1.000 kg-ko kopurua aise gaintzen dute herriko sagardotegiek. Guztien artean urtero 4 miloi kilo sagar baino gehiago zukutzen dituzte eta 2 miloi eta erdi edo 3 miloi litro sagardo pilatzen dira upeletan eta botiletan.

Porruak milaka ez, zientoka landatzen dira. Arrau-

**"BADIRA  
MILA MOTIBO  
KANTATZEKO ALAI"**

tzak dozenaka kontatzen dira. Erle espezieak 20.000 direla ikasi dugu pelikula bati esker; 20 aldiz mila.

Usurbildik 1.000 km iparralderantz joanda itsasoan amaituko dugu; hegoalderantz jota Andaluzian; ekialdera abiatuta Pirinioak zeharkatuko ditugu, Mediterraneora gerturatzen; eta mendebaldera Galizia eta Atlantikoa zapalduko ditugu.

Mila aitzakia topa daitezke 1.000 zenbakia borobil bihurtzeko, ospakizun bilakatzen. Edo aitzakia bakar bat ere nahikoa izan daiteke. Kontuak kontu eta zenbakiak zenbaki, 2024ko uztailaren 19an NOAUA! aldizkariaren 1.000 zenbakia iritsi da Usurbilgo milatik gora etxetara, mila buzo baino gehiagotan egin du kuku.

1.000 zenbakia, alajaina! Dudarik gabe, badira mila motibo kantatzeko alai.

## Udako bisita gidatuak

650 Usurbil Bizi herri egitasmoaren bisita gidatuz gain, Andatzan errotarrien bidea eta 1936ko gerrak utzitako aztarnei lotutako oroimen bidea nork bere kabuz osatzeko aukera izango da. Ibilbidea seinaleztatua dago eta panelletako QR kodeen bidez informazio gehiago eskura daiteke:

## Uztailak 18, osteguna

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita udaletxetik abiatuta.

## Uztailak 20, larunbata

• 12:00-13:30 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita gidatua organo erakustaldiarekin. Oharra: taldea osatuta.

## Uztailak 21, igandea

• 11:00-13:30 Museo Irekia eta Chillida Lekura bisita.

## Uztailak 24, asteazkena

• 10:00-11:15 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

## Uztailak 27, larunbata

• 12:00-13:00 Museo Irekia bisita gidatua.

## Abuztuak 11, igandea

• 18:00-19:00 Museo Irekia bisita gidatua.  
• 20:00 Kontzertua Salbatore elizan.

## Abuztuak 17, larunbata

• 12:00-13:00 Salbatore Elizaren ondarea ezagutzeko bisita.

## Irailak 1, igandea

• 12:00-13:00 Museo Irekia bisita gidatua.

## Irailak 14, larunbata

• 11:00-13:15 Museo Irekia eta Zumeta Arte Estudiora bisita gidatua.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
• PLATER KONBINATUAK  
• BOKATAK • PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PARRIKAZI  
JATEXEA  
• bazkariak EGUNERO  
• afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361



'Usurbilgo lehoia' koadroa Potxoenean dago ipinia, Urdintxo gelan.



Koadroa eta bi kartelak 'Zumetaren Usurbil' erakusketan ikusteko moduan izan ziren.

# Zumetaren 'Usurbilgo lehoia' erosi du Udalak

Udalak 18.000 euroren truke eskuratu du koadroa. Era berean, Zumeta Arte Estudioak bi kartel eman dizkio Udalari dohaintzan.

1985 urtekoa da obra, papiroen bildumakoa, uhin-kartoa eta tenpera erabilia egindakoa. Zumetaren Usurbilgo muralaren 50. urteurrenako egitaraua amaituta eskuratu du obra udalak, eta, aldi berean, artistaren bi kartel eman dizkio, dohaintzan, Zumeta Arte Estudioak udalari.

Udaletik oroitarazi dutenez, "Zumeta batik bat abstrakzio-rako joeragatik zen ezaguna, baina figurazioan ere hainbatetan ibili zen bere ibilbide

artistiko osoan. Esaterako, 1970eko hamarkadaren amaieran, hogeitaz jorratutako abstrakzioa alde batera utzi eta errealismoan eta figurazioan murgildu zen, Zumeta Arte Estudioak azaldu duenez: "1980ko hamarkadaren krisiaren testuinguruan, bai garaiko ekonomiari zegokionez, eta baita pertsonalki ere, 1984 eta 1985 urteetan uhin-kartoa eta tenpera aukeratuko ditu bere unibertsoa adierazteko. Aurreko esperientzietan ezohiko

materialak erabilitakoa zen Zumeta, baina 1984 eta 1985 urteetan egin zuen uhin-kartoiaren ezaugarriak ahal bezainbeste probesteko hautua".

## Bi kartel dohaintzan

Konterbazioa errazteko marko batean babestua dago artelan hau. 70 artelanetik gorako Papiroak izeneko bildumako sortze lan honek "berak udal arte bilduma osatzeko interes artistiko berezkoa du, eta, horrez gain, Usurbilgo erreferentzia zuzena egiten dionez, herriarentzako interesgarri izan daitekeela iritzi dute bi aldeek".

Gunea beste artista baten sortze lanarekin partekatuko du. Izan ere, "gela horretan bazegoen beste artelan bat lehendik, Alejandro Tapiaren Txokoalde, gauez izeneko. Zumeta Arte Estudioaren aholkuei utsita, haren lekua hartu

du, orain, Usurbilgo lehoia-k, eta aretoaren atzeko horman jarri dute Tapiarena: arreta handiagoa deitzen du orain, eskaileretatik igo ahala lehen begi kolpean ikusten baita".

Aipatu obra honez gain, Zumeta Arte Estudioak "Zumetaren bi kartel eman dizkio, dohaintzan, udalari. Batek Santixabel festetako bertso saio bat iragartzen du, eta bestea, berriz, Usurbil herri izendatu zuteneko 600. urteurrenaren harira egindakoa da: azken hori Pelaiorenean jarriko dute, eta bestearen behin betiko kokapena erabakitzeke dago".

## "UHIN-KARTOIAN ETA TENPERA ERABILITA EGINA DAGO OBRA"

## Floxbinen itzulera

"Luzaroan oholtzetatik kanpo egon ondoren, bueltan da Usurbilgo metal taldea". Larunbat honetan Sutegiko ohol-tza gainera itzuliko direla berri eman dute. 20:00etan hasiko den kontzerturako sarrera doakoa izango da. "Ia bi orduko emanaldia, topera!", aurreratu dute Floxbineko

kideek. Bertaratzeko gonbita egin dute. "Jendearen bertasuna eskertuko genuke".

### Bi lan

'AK!' izeneko izan zen Floxbin taldeak 2016. urtean kalera-uriko estreinako 10 abestiko lana. 2019an argitaratu zuen Joseba Agirresarobe 'Txofok'



Larunbatean Sutegin arituko dira.

(ahotsa, gitarra), Iñaki Udabe (bateria), Rafael Bajo (gitarra) eta Iñigo Roteta (baxua) laukoteak haien azken lana; 'Hil arte bizi' izeneko. Euren musika helbide honetan entzun ditzakezue: floxbin.bandcamp.com

Azken urteotan, hainbat abesti zintzilatu ditu Floxbin taldeak. Iaz, "Baby please don't go", ACDC taldearen bertsioa zabaldu zuten atari berean.



Murrizketarik gabeko Osakidetza duinaren alde, hainbat herri plataformek berriki Donostian egindako mobilizazioa.

# Osakidetza duinaren alde borrokan

Etengabeko arreta gune hainbaten itxiera, zerbitzuaren ordutegia gutxitzea, profesional kopuruan murrizketak... Beste urte batez, uda honi begira Osakidetza aplikatu diren murrizketak salatu dituzte osasungintza publikoaren aldeko herri plataformek.

Udan gutako askok ez bezala, gaixotasunak ez dute oporrrik izaten, baina hala dirudiela salatzen ari dira, azken aldian, beste behin, sektoreko langileek nahiz erabiltzaileek osaturiko osasun publikoaren aldeko hainbat herri plataforma. Izan ere, beste urte batez, uda honi begira Osakidetza zerbitzuak murriztu ditu hiru lurraldeetan; hainbat Etengabeko Arreta Gune ixtea erabaki dute edota ordutegia gutxitzea, beste hainbatetan profesionalak falta direla ere salatu dute. Ondorioz, "horrek egiten du arretaren kalitatea gutxitzea".

Horregatik bildu ziren uda hasieran, Donostialdea Osasun Publikoaren Alde herri plataformak deituta Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoako hiriburuan duen ordezkartzaren atarian.

"Ez gara geratuko, indarra egiten jarraituko dugu gure medikuek, erizainek eta administratzaileek, gure osasungintza publikoan ondo artatu gaitzaten", iragarri zuten.

## "Udan ez gara gaixotzen?"

Salatzen dutenez, udaberriko Eusko Legebiltzarreko hauteskunderen harira egungo gobernua osatzen jarraitzen duten aurreko legealdiko bi alderdietatik iragarritakoa ez dira betetzen ari eta uda garai honetako murrizketak jarri zituzten horien lekuko gisa. "Udan langileek oporrak hartu behar dituztela eta horregatik aplikatzen dituztela murrizketak diote. Guk esaten diegu, noski, langileek eskubideak dituzte baina udan ez gara gaixotzen?", galdetzen dute plataforma hauetatik.

Hainbat profesional zerbitzu hau uzten ari dira, lehen arreta zerbitzuan jarduteari uko egiten ari zaiela ohartarazten ari dira, egoera jasanezintzat jota; espezialitateetara edota beste arlo batzuetan lan egitera doazela. Osakidetza langileek husten ari direla ohartarazten ari dira aspalditik. "Egoera geroz eta okerragoa da. Frustrazioa, urduritasuna" sumatzen dela, baita gainbehera orokorra zerbitzu ho-

**"INDARRA EGITEN JARRAITUKO DUGU GURE OSASUNGINTZA PUBLIKOAN ONDO ARTA GAITZATEN"**

netan, hainbat langile ez direlako haien jardunean ari lan-baldintza egokietan. Horrek, horrenbestez, gaixo dena egoki ez artatzeko arriskua areagotzea dakar.

## Erreferentziazkoak, jarraipenerako

Horren adierazle da, Usurbil barne hartzen duen Donostialdeako ES1a. Inguruotako 400.000 biztanle artatzen ditu, hasi Orereta aldetik eta Zarautz ingurura arte. "Langileoi astero pasatzen digute ze zentro geratuko diren sendagile gabe, zergatik ez diete helarazten informazio hau herritarrei?", adierazi digute plataformako kide batek. Erreferentziazko profesionalak falta direla salatzen dute, unean uneko arreta eskaintzeaz gain, garrantzitsua baita noski, herritarrek haien osasun egoeraren jarraipena egiteko ezagutza dutenak dira eta. Horregatik diote, "lehen arretako medikua beti bera izatea ezinbestekoa da". Aldaketa eta murrizketa hauen guztien ondorioz, diotenez, izatez lehen arreta zerbitzuan, ambulatorioan artatzeko moduko egoerak ospitaleetara bideratzen dira, hainbat herritar zuzenean larrialdi zerbitzuetara jotzea erabakitzen ari delako azken urteotan.

## Oraindik garaiz

Beste behin, gogorarazten dutenez, oso atzetik datoz egun indarrean diren murrizketak. Kezka agertu digute, ez ote den helduko egun bat, Osakidetza atzera bueltarik gabeko egoeran sartuko dena. Momentuz, oraindik garaiz gaudela adierazi digute, baina horretarako, "herritarren parte hartzeak" erabatekoa izan behar duela nabarmentzen dute, osasungintza publiko duinaren aldeko defentsan. Atzera bueltarik gabeko egoerara heldu aurretik, "gure eskubideak babesten segitzeko borrokatu behar gara", nabarmentzen dute.



Iazko herri kirol ikuskizuna sokatira saioarekin amaitu zen.

## Zubietarrak nor baino nor arituko dira uztailearen 27ko 'desafiyuan'

Iazko 'desafiyua' ikusgarria izan zen. Aurten, uztailearen 27an jokatu da kirol norgehiagoka. Iazko eskema jarraitzen badute, Jai Batzordeko kideak eta herritarrak bi taldetan banatuko dira eta elkarren aurka arituko dira.

Toka, lokots biltzea, txingak, giza-proba, zaku lasterketa, sagar biltzea, korrika eta sokatira. Horiek izan ziren iazko lehian osatu behar izan zituzten probak.

Jarraian, sardin eta piper-jana hasiko da.



Uztailearen 29an ospatuko da Umeen Eguna, astelehenarekin.

## Jolasak, buruhandiak eta diskofesta, Umeen Egunean

Umeen Eguna uztailearen 29an ospatuko da Zubietan. Goizean goiz, jolasean aritzeko aukera izango dute herriko txikiek. Ondoren, lagunartean bazkandu ahal izango dute. Norberak eraman behar du bere bazkaria. Postrea aldez, antolatzaileek

banatuko dute. Indarrak berriro ondoren, jolasean jarraituko dute askarira arte, eta orduantxe txokolatea banatuko dute. Txokolate-jana eta gero, buruhandiak aterako dira plazara eta eguna biribiltzeko, diskofesta iragarri dute.

**Ondo pasa SANTIOMETAN!**

TABERNA · PINTXOAK · RAZIOAK · BOKATAK  
 · HANBURGESAK · JATETXEA · MENUAK  
 · KARTA · AFARI MUSIKALAK  
 OSPAKIZUNAK · EZKONTZAK · BATAIOAK

**Araeta**  
sagardotegia

Berridi Bidea 22, ZUBIETA 943 362 049

Ondo pasa festetan!

**BENTA TABERNA**

Pintxoak eta giro ona!



Elur Zaldua, eskiatzeko erabili ohi duen elastikoarekin.

# "Munduko Kopan parte hartzeko aukera izan dut"

## ELUR ZALDUA ESKIATZAILEA

Elur Zaldua zubietarrak aurtengo eskiko Munduko Kopan parte hartu du. Euskadiko selekzioan sartu eta urte gutxira lortu du halako aukera. Zubietako Jai Batzordeko kide izanik, bestelako zereginak ere izango ditu datozen egunetan.

**Eski-denboraldi borobila egin eta gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saritua izan zara. Zure urtea al da?**

Bai, oraingoz hori esan behar dugu. Ezinhobe nabil eski kontuetan. Aurten lehen aldiz joan naiz Munduko Kopan parte hartzera eta, gero, gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saria jaso dut. Sorpresa ederra izan da.

**Eski-denboraldian emaitza ederak ekarri dituzu etxera, Munduko Kopan parte hartzea, besteak beste.**

Duela bost urte hasi nintzen eskian lehiatzen. Inoiz ez nuen bereziki serio hartu eskiaren kontua. Benetan maila onean

lehiatzeko egunero entrenatu beharra dago, gutxienez, urtean sei hilabetez. Nik astean pare bat aldiz entrenatzen nuen, ordea. Hala ere, hau azken urtea dut nire mailan, eta horregatik irailean serio hartzea erabaki nuen. Irailean gogotsu hasi nintzen entrenatzen, eta lehen lasterketan hirugarren

**"HIRU URTE NITUENETIK ESKIATZEN DUT ETA AITAK ERAKUTSITA HASI NINTZEN"**

egitea lortu nuen Espainian. Momentu hartan ez zidaten deitu Munduko Kopan parte hartzeko, lehen aldia bainuen halako maila ona erakusten nuen. Ordutik aurrera, maila polita erakustea lortu nuen hurrengo lehiaketetan ere, eta hala, Munduko Kopan parte hartzeko aukera lortu nuen.

**"ESPAINIAKO KOPAKO LEHEN POSTUAK EMAN ZIDAN TXARTELA MUNDUKO KOPAN PARTE HARTZEKO"**

Andorran jokatu genuen Espainiako Kopan lortu nuen lehen postuak eman zidan txartela Munduko Kopan parte hartzeko.

**Nolakoa da eredutzat hartzen dituzun horien aurka lehiatzea?**

Munduko Kopara iritsi nintzenerako banekien postu ona lortzeko aukerarik ez nuela izango. Bertan parte hartu zuten eskiatzaile askok egunero entrenatzen dute halako lehiaketetan maila ona erakusteko. Nire helburua ondo pasatzea zen eta selekzioko kideen artean lehena izatea. Ezin ditugu konparatu egunero eskiatzeko aukera duten kirolariak gurekin. Euskal Herrian eta inguruetan elur gutxi egiten du neguan, eta ezin dugu konparatu gure egoera Europako beste herrialde batzuetako egoerarekin. Ekainera arte elurra egoten da hainbat lekutan, eta urrirako berriz ere martxan jartzen dira. Nik astebukaeratan baino ezin dut eskiatu eta horrenbeste hila-betez ere ez. Hala ere, oso pozik nago lortutakoarekin.

**Deigarria da halako kirol batean nabarmentzea; gurean elurra gutxitan egiten du.**

Elurra dagoenean, astero edo ia astero joaten naiz eskiatzera gurasoekin. Astean zehar, berriz, bizikletan edo korrika ibiltzen naiz. Gainontzeko eskiatzaileek ere hala entrenatu ohi dute maiz, batez ere udan. Garrantzitsua da altueran entrenatzea ere. Lehiaketa gehienak 1.500 metroko altueran edo gorago egiten dira, eta horrek eragina du oxigenazioan eta. Saiatzen naiz ni ere altueran entrenatzen, baina hemen inguruan zaila da horretarako aukera izatea. Aurten, azaroa bukaran hasi nintzen eskiatzen eta amaitu Aste Santuan. Lau edo bost hilabeteko kontua izaten da. Ezin naiz urtean zazpi edo zortzi hilabetez elurretan entrenatzeko aukera dutenekin konparatu.



### → Noiz hasi zinen eskiaz interesatzen?

Txiki-txikitatik eskiatzen dut. 3 urterekin hasi nintzen eta aitak erakutsi zidan. Gurasoei asko gustatzen zaie eskiatzea eta oso txikia nintzela aitak erakutsi eta pistan sartzen hasi nintzen.

### Nola sartu zinen Euskadiko selekzioan?

Amaren lagun batzuen bidez jakin nuen duela lau edo bost urte Euskadiko selekzioan jende berriaren bila ari zirela eta probak egin behar zituztela. Hamar edo hamabi eskiatzailek hartu genuen parte proba haietan eta hiru sartu ginen selekzioan. Hala ere, selekzio kideok ez dugu batera entrenatzen, bakoitzak bere entrenamenduak egiten ditu eta lehiaketetara joaten gara; ez dago dirurik gehiagorako. Lehiaketetan parte hartzeko hotela, izen ematea eta bestelako gastuak ordaintzen ditu selekzioak, baina entrenamenduetan ez du eskurik hartzen. Katalunian, entrenamenduak batera egiten dituzte. Udan Alpeetara joan dira eskiatzera. Alde ederra dago selekzio batetik bestera. Selektioan sartu aurretik ez zitzaidan batere gustatzen lehiatzea. Batere ez. Behin selekzioan sartuta motibazioa aurkitu nuen eta orain asko gustatzen zait lehiatzea. Lehen urtean, DBH amaitzen ari nintzela, ondo aritu nintzen lehian bi podium eginda. Ondoren, pandemia iritsi zen eta nire maila eta errendimenduan beherakada nabarmena nabaritu nuen. Irailean hasi nintzen berriro ere kontua serio hartzen.

### Nola jakin zenuen aukerak zenuela selekzioan sartzeko?

Bigaitasun edo ezaugarri behar dira ondo eskiatzeko: egoera fisiko egokia eta teknika. Alderdi teknikoa oso garrantzitsua da, oso zaila baita hobetzen. Aldapak jaisten oso ona izan behar duzu. Ez baldin



"Amaren lagun batzuen bidez jakin nuen duela lau urte Euskadiko selekzioan jende berriaren bila ari zirela".

bazara ona, oso zaila da teknika hobetzea. Fisikoa, berriz, alda daiteke, errazagoa da. Garrantzitsua erresistentzia da. Lehiaketa guztiak ez dira berdinak eta ezaugarriak alda daitezke. Lasterketa oso motzetan, lau bat minutu azpikoetan, adibidez, indarra ere beharrezkoa da. Hala ere, normalean erresistentziak egiten du lanaren %90 eta teknikak %10. Egunero entrenatu beharra dago. Egun batean entrenatzen ez baduzu, hurrengo egunean nabaritu egiten duzu.

### Nola lortu zenuen kirol honetan nabarmentzen hastea?

Urtean, selekzioarekin zortzi bat lehiaketatan parte hartzen dugu. Ez dira gehiegi ere. Zaila da euskaldun bat eskian nabarmentzea, selekzioak ez dauzka nahikoa baliabide eta modu indibidualean entrena-

natzeko ere ez daukagu erraztasunik. Selektioak entrenatzeko ere ez digu pautarik jartzen, alderdi hori modu indibidualean landu behar dugu. Nik entrenatzaile pertsonala daukat, Xuban Errazkin usurbildarra. Duela pare bat aste egon nintzen berarekin denboraldi berria planifikatzen hasteko eta entrenamenduak horren arabera antolatzeko. Nutrizioari erreparatuta, lehiaketa garaian gauzak ondo egin beharra dago. Ondo jatea beharrezkoa da gorputza ez ahuldu eta gaixotzeko. Aurten hasi naiz alderdi hori ere zaintzen.

### Orain festak izango dituzue.

Bai, jai batzordeko kidea naiz eta antolakuntza lanak egin eta gozatzea tokatzen zait aste honetan. Entrenamenduek eta nutrizio kontuek itxaron egin beharko dute pixka bat.

**"DUELA URTEBETE HASI NINTZEN BERRIRO ESKIAN LEHIATZEKO AUKERA SERIO HARTZEN"**

**"JAI BATZORDEKO KIDE NAIZ ETA ANTOLAKUNTZA LANAK TOKATZEN ZAIZKIT ASTE HONETAN"**

### Erraz uztartzen dituzu ikasketak eta eskia?

Lehen entrenatzailea batxilergoko bigarren urtean hartu nuen. Oso zaila egin zitzaidan urte hartan ikasketak eta entrenamendua uztartzea. Joan zen urtean, unibertsitatean hasi nintzen Kirol Zientziak ikasten eta ohitu nintzen bi arloak uztartzera. Ordubietan unibertsitatetik atera eta arratsaldean lasai entrenatzeko aukera dut. Neguan nahiko zaila da azkar iluntzen duelako, baina ikasketak ez dira oztopo entrenatzeko.

### Epe erdira zein helburu jarri dizkiozu zeure buruari? 2026ko Neguko Joko Olinpikoetarako sailkatzea?

Horiek prestatzeko ez dago denborarik, eta ez naiz horrelako lehiaketa batean ikusten. Euskal txapelketarik ez da izan aurten elur faltagatik, baina datorren urtean seniorra izanda gustatuko litzaidake irabaztea. Munduko Kopan ere parte hartu nahi dut berriro, baina oso zaila izango da ikaragarriko maila dagoelako. Datorren urterako helburu bakarra gozatzea izango da eta ea euskal txapela hori jazten dudan.



**bugati**  
ERRETEGIA

OILASKOAK IKATZ-BRASAN ERRETEGIA  
eta UMEENTZAKO JOLASTOKIA



Arrapide Pasalekua, 74  
20160 Zubieta (Donostia)

📞 943 37 76 62    📌 Bugati Erretegia



**Iruin** Sagardotegia

ONDO PASA SANTIOAK!!

Petritza bidea 12, Zubieta 943.361.229




ALAMANDEGI JATETXEA

• Ogitartekoak, pintxoak, razioak, plater konbinatuak...


*Ondo pasa Santioetan!*

Tel. 943 03 12 75 Urbitarte kalea 1, 20160 Zubieta



**BARAZAR**  
**OSTATU-JATETXEA**

LOGELAK KOMUNAREKIN  
AFARIAK ASTEARTETIK LARUNBATERA



**943 36 33 58 ARBITZA BIDEA, ZUBIETA**

# Zubietako jaien egitaraua

## Uztailak 24, asteazkena

- 19:00 Jaien hasiera: Txupinazoa eta buruhaundiak.
- Jarraian, txoznen irekiera Elene eta Anuk musikariek girotua.
- 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik.
- Ondoren, Itzal taldearekin dantzaldia.

## Uztailak 25, osteguna: Santio Eguna

- 9:00 Esnadeia, Donostiako Txistulari bandaren eskutik.
- 11:00 Meza Nagusia.
- Ondoren, hamaiketakoa, Joko Garbi elkartearen eskutik eta soka-dantza.
- 17:30 Patxi eta konpainiarekin dantzaldia.

- 19:30 Bertsolariak: Joanes Ilarregi, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Asier Azpiroz. Gai-emailea: Zortzitan Bertso Eskola.

## Uztailak 26, ostirala: Oilasko Biltzaile Eguna

- 06:00 Oilasko biltzaileen irteera, Ane eta Alaitz trikitilariak alaituta.
- 14:30 Oilasko biltzaileen iritsiera.

## Uztailak 27, larunbata: Jubilatuen Eguna

- 12:00 Sagardo dastaketa eta pintxoak plazan.
- 14:00 Jubilatuen Bazkaria Joko Garbi elkartean.

- 15:00 Bertso bazkaria.
- Ondoren, Gurdi Rock.
- 17:30 Desafiyua.
- Jarraian, buruhaundiak.
- 19:00 Sardin eta piper jatea plazan.
- 20:00 Bingoa.
- 23:00 Kontzertuak: Triki-dantz, Bad Sound System, Dj Txolas.

## Uztailak 28, igandea: Gastronomía eguna

- 16:30 Tortilla patata lehia-keta.
- 19:00 Bingoa.
- Ondoren, Ibey Beat Boxer-eren emanaldia.
- 19:30 Krokepote txoznan.

## Uztailak 29, astelehena: Umeen Eguna

- 10:00 Jolasen hasiera.
- 14:00 Umeen bazkaria: bakoitzak berea ekar dezala eta gure kontu postrea eta sorpresa.
- 16:00 Jolasen jarraipena.

- Ondoren, txokolatada eta buruhaundiak.
- Bukatzeko, diskofesta.

## Uztailak 30, asteartea: Gaupasa eguna

- 16:00 Mus txapelketa (15:30ean izen-ematea).
- 18:00 Herriko gaztetxoan Yoko Garbi emanaldia, erre-bote plazan.
- 00:00 Kontzertuak: Ithaka, Xiberoots, Dj Fantasia.

## Uztailak 31, asteazkena: San Inazio Eguna

- 10:30 Meza.
- 11:30 Zubietarren arteko erre-bote partida.
- 14:00 Herri bazkaria.
- 18:30 Herri Kirolak. Iparraldeko jokoak: Tubi eta Jon Loiola. Harria jasotzen: Jokin Eizmendí.
- 23:00 Herriko jaien amaiera, traka eta suziriekin.

Ondo pasa  
Zubietako Herri Jaietan!

USURBILGO  
LANBIDE  
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

@UsurbilLHII

Ezagutu gure  
ikastetxea  
[www.lhusurbil.eus](http://www.lhusurbil.eus)

# Umeen Egunarekin hasiko dira Urdaiagako jaiak

San Esteban eguna larunbatarekin egokitu da aurten. Beraz, Urdaiagako jaiak Umeen Egunarekin batera abiatuko dira. Goizeko 10:00etan botako duten txupinazoarekin murgilduko dira auzoko festetan.

## Abuztuak 2, ostirala:

### Umeen Eguna

- 10:00 Txupinazoa.
- 10:30 Jolasak (aldatzeko arropa ekarri).
- Ondoren, buruhandien irteera.
- 14:00 Bazkaria (autogestio-natua).
- 16:00 Umeen tailerrak.
- 16:00 Mus txapelketa (izen-ematea 15:30 hasiko da).
- 18:00 Buruhandien irteera.

- 21:00 Bertso-afaria (txartelak salgai alde zurretik jarriko dira).

- Gauean: Txiskeroak eta Rukula taldeen kontzertuak, ondoren DJ Txolas.

## Abuztuak 3, larunbata: San Esteban Eguna

- 11:00 Meza.
- Jarraian, dantzariak.
- Gero, paxintxi eta ardo-goxo banaketa.



Abuztuaren 2an gaztetxoak izango dira protagonista nagusiak. Egun osoan zehar, jolasean aritzeko hamaika aukera izango dituzte.

- 14:00 Herri-bazkaria, nork berea emanda. Edaria eta kopak Jai Batzordearen eskutik.
- 18:00 Helduen jolasak.
- Jarraian, buruhandien irteera.
- 21:00 Afaria nork berea emanda, edaria eta kopak Jai Batzordearen esku.

- Gauean: Etxekalte eta Gani-bet musika taldeak.
- Jarraian, mozkor-jolasak.

## Abuztuak 4, igandea

- 16:30 Herri kirolak.
- 19:00 Tortilla patata lehiaketa.
- Ondoren, buruhandiak.
- Jaien amaiera.

**URTINEA**  
JANTZI KOLOREZ ZURE ETXEA,  
BALKOIA ZEIN LORATEGIA!

GARAIKO LOREAK, FRUTARBOLAK,  
LOREONTZIAK, LORE-SORTAK

INFORMATU ZAITEZ

SAN ESTEBAN AUZOA, USURBIL  
TEL: 943 36 22 55

Herri osoak ikus zaitzala nahi duzu?

**IPINI ZURE  
IRAGARKIA  
HEMEN**

Kontsulta itzazu tarifak  
[noaua.eus/publizitatea/](http://noaua.eus/publizitatea/) orrian  
edota deitu 943 360 321 telefono  
zenbakira

**noaua**

# Atxegaldeko jaiak, udako oporren azken txapan

Oporretatik itzuli eta lagunekin berriro elkartzeko aitzakia ederra eskaintzen dute Atxegalde auzoko jaiak.

Abuztuaren 23tik 25era Atxegalde izango dituzten festak antolatzen hasi da bertako jai batzordea. Bilgunetik hain zuzen, bilera baterako deia egin dute.

## Uztailaren 30ean bilera, Atxegaldeko plazan

Izan ere, "dugun lan karga eta aurreko urteko iradokizunei entzunez, laguntzeko prest dagoen orekin bilera bat egin nahiko genuke". Bilera honen hitzordua ere finkatu dute dagoeneko. Datorren uztailaren 30erako

deitu dute, arratsaldeko 18:00etan Atxegaldeko plazan. "Anima zaituz!!", egin dute gonbita.

Egitaraua nagusiki osatua dute. Honatx abuztu amaierarako iragarri dituzten festen hitzorduen berri:

## Jai egitaraua

### Abuztuak 23, ostirala

18:00 Hamarru elektrotxaranga Karobitik.  
20:00 Txupinazoa.  
23:00 Kontzertuak + DJ.



"Aurreko urteko iradokizunak entzun ondoren, laguntzeko prest dagoen orekin bilera bat egingo dugu uztailaren 30ean, 18:00etan Atxegaldeko plazan".

### Abuztuak 24, larunbata

11:00 Umeen jolasak.  
15:30 Mus txapelketako izen-ematea.  
16:00 Mus txapelketaren hasiera.  
18:30 Txokolatada eta bu-ruhaundiak.  
21:00 Auzo afari musikatua.

00:30 Kontzertuak + DJ.

### Abuztuak 25, igandea

11:30 Toka.  
12:00 Hamaietakoia.  
18:00 Bertso-saio musikatua.  
Antolatzailea: Atxegaldeko Jai Batzordea.

## Jarrai iezaguzu sare sozialetan



www.noaua.eus



@noauaastekaria



@noaus



Noaua Aldizkaria



@noauatb



Iñurri elkartearen eguna irailaren 7an ospatuko da Usurbilen.

# "Zatoz Iñurri Eguna gurekin ospatzera!"

Egitasmoa abiarazi zutenetik bost urte bete dituzten honetan, estreinakoz lehenengo Iñurri Eguna egingo du izen bereko elkarteak, irailaren 7an Usurbilen.

## Irailak 7, larunbata

• **9:30-11:30 Yoga eta gosaria Usurbilgo frontoian,** Olatz Berasategiren eskutik. Bukatzerakoan, "Ore Ama, Txalaka eta Tolosa jatetxeak prestatutako gosariak gozatzeko aukera izango dugu".  
• Prezioa: 18 euro.  
• Plaza kopurua: gehienez 30 lagun.

• **11:30-13:30 Serigrafia tailerra Potxoenerako sotoan.** "Iñurri egunerako diseinatutako lamina bat serigrafiatuko dugu Beñat Iraolaren laguntzaz". Tailer honetan serigrafiaren nondik norakoak azaldu, eta egun honetarako zehazki sortutako ilustrazio baten estanzazioa burutuko du parte hartzaile bakoitzak Beñaten laguntzaz. Estanzazioa paperean egingo da eta parte hartzaile bakoitzak la-

mina etxera eraman ahal izango du".

• Prezioa: 16 euro.  
• Plaza kopurua: gehienez 15 lagun.

• **11:30-13:00 Belarritako pertsonalizatuak sortzeko tailerra** Ebonyren laguntzarekin Potxoenerako proiektore gelan. Ebony Tai Day Studio proiektuaren atzean dagoen kidea da. "Tailer honetan buztin polimerikoz egindako bi belarritako pare egiteko aukera izango dugu. Kolore eta forma aniztasuna erabiliz, bakoitzak bere pieza eskusiboak sortuz".  
• Prezioa: 22 euro.  
• Aforoa: gehienez 12 lagun.

## Hitzaldiak:

• Heriotza eta dolua.  
• Zoru pelbikoa eta sexualitatea.  
• Feminismoa.

• **14:00 Bazkaria Usurbilgo frontoian.** Menua: Pasta entsalada + albondigak + gazta tarta.  
\*Menu beganoa eskatzeko aukera egongo da.  
\*Ogia, sagardoa eta ura.  
• Prezioa: 18 euro.  
• Aforoa: 300 lagun.

• **17:00 Olatz Mercaderren monologoa** (Aitziber Garmendiaren gidaritzapean) frontoian.

• **17:30 Kontzertuak frontoian:**  
17:30 Elektropottote.  
18:00 Idoia Asurmendi.  
19:00 Eñaut Elorrieta.  
20:00 Rukula.  
Prezioa: 12 euro.

**Sarrerak erosteko eta informazio gehiago:**  
izaninurri.eus/inurri\_eguna\_2024/ atarian jaso ahalko duzue.

## "Herriak egin, zaindu eta garatutako festak izan dira"

Santixabelak bukatu berritan, festetako balorazioa egin du jai batzordeak: "aurten-go jaiak primeran ateratu dira. Ezbehar edo gorabeherarik gabeak". Aldi berean, herritarrek festetan gero eta gehiago parte hartzen dutela baloratu dute.

Ekitaldi jendetsu ugari izan ziren. Erromeriak nabarmendu dituzte: "Aspaldian ez bezala, adin tarte guztietako jendea ikusi da dantzan frontoian". Jende ugari batu dute, baita ere, kontzertuek, herri kirolen lehiak zein txupinazoaren bezperan Sutegin eskaini zen ikus-entzunezkoak ere. Festa zain-tzaileen inguruan egindako lana ere oso ondo baloratu du jai batzordeak, eta aurrerantzean ere bide horri eusteko beharra azaldu du.

Antolaketa arloan, elkarlana izan da nagusi: "Taldea bakoitzak bere txokotik lan egin beharrean, jai batzordea sarean lan egiteko urratsak egiten hasi da". Eta bereziki nabarmendu dute gazteek egindako lana.

## Aterpe falta, euria egiten duenerako

Hobetu beharrekoen artean nabarmendu dute euria egiten duenerako aterpedun alternatibak hobeto fintzea.



Uda partean ere, garbigune mugikorra auzoz auzo ibiliko da.

## Hondakinen kudeaketari buruzko hainbat gomendio

Udal zerbitzu batzuk udako ordutegian dira eta larrialdi guneak ere erabili ahal izango dira, aplikazio baten bitartez.

Askorentzat opor garaia izango den honetan, etxetik kanpora joan aurretik, Usurbilgo Udalak kaleraturiko zenbait gomendio, bizilekuko "hondakinak hustu nahi badituzu". Larrialdi guneak erabili daitezke. Horretarako, lau urrats jarraitzea gomendatu dute: "JustIN Mobile" izeneko aplikazioa instalatzea norbere smartphonean; eskaera atez ateko bulegoan egitea, "zein egunetan beharko duzun adieraziz"; aplikazioa izango da larrialdi guneko giltza eta eskatutako egunean erabili ahalako da; azkenik, dagokien edu-

kiontzietan bota hondakinak. Horrez gain, "giltza fisikoak" ere eska daitezkeela ohartarazi du Udalak. Informazio gehiago, udaletxean bertan kokatua dagoen Atez Ateko Bulegoan, 900 776 776 eta 606 501 024 telefono zenbakietan edo atezate@usurbil.eus helbidean.

### "GARBIGUNE MUGIKORRA MARTXAN IZANGO DA UDA OSOAN"

#### Errefusa

Bi igandean behin biltzen den hondakinen zati hau egunotan jasoko da udako asteotan:

- Uztailak 21.
- Abuztuak 4 eta 18.
- Irailak 1.

#### Garbigune mugikorra

Atalluko Garbigunera joan ezin dutenei zerbitzu hau gerturatzea helburu duen Udalaren garbigune mugikorrek Usurbilgo herri eta auzoetan ibiltzen da astez aste. Geltokiok izango ditu uda honetan:

- Uztailak 18-24: Kalezar.
- Uztailak 25-31: Kaxkoa.
- Abuztuak 1-7: Aginaga.
- Abuztuak 8-14: Zubieta.
- Abuztuak 15-21: Txokoalde.
- Abuztuak 22-28: Santuenea.
- Abuztuak 29-irailak 4: Kalezar.
- Irailak 5-11: Kaxkoa.

#### Atalluko garbigunea

Gogoan izan, bestalde, udako ordutegian dela aste hasieratik irailaren 15era arte Atallun kokaturiko Garbigunea:

- Astelehenetik ostiralera: 10:15-12:50 / 16:00-18:20.
- Larunbatak: 09:00-12:50.
- Igandeak eta jai-egunak: itxita.

#### San Markoren furgoneta ibiltaria

"Hondakin arriskutsuak" jasotzeko mankomunitateko furgoneta ibiltaria hilean bitan izango da gure artean uda honetan ere:

Uztailak 31 eta abuztuak 28:  
• 9:00-12:45 Mikel Laboa plaza.

#### Abuztuak 7 eta irailak 4:

- 9:00-11:00 Mikel Laboa plaza.
- 11:05-11:20 Aginaga.
- 11:30-11:40 Txokoalde.
- 11:45-11:55 Santuenea.
- 12:05-12:15 Zubieta.
- 12:20-12:30 Txikierdi.
- 12:35-12:45 Kalezar.

## Baba beltz txikiaren kofradiaren ospakizuna

Azken orduko aldaketarik ez bada, abuztuko azken ostegunean (abuztuaren 29an) bilduko dira Baba Beltz Txikiaren Kofradiako kideak Sainzar sagardotegian. Elikagai honi gorazarre egiten dion jakiaren bueltan osatutako bilgunearen bazkaria 14:00etan hasiko da. Otordurako izena aurrez eman beharko da sagardotegiko 943 37 39 95 telefono zenbakira deituta. Aurreko urteen ildotik, ereserkia abestuz, kofradekide berri bat izendatu eta 2025eko edizioa iragarriko dute.

## Pagazperen errifa zozketako saritu bat ez da agertu oraindik

Herriko pilota elkarteak Usurbilgo 51. Pilota Txapelketako jaietako, uztailaren 2ko finalen amaieran eginiko errifa zozketako sari bat banatzeko dute oraindik. Errifaren jabea ez dela agertu ohartarazi dute:

1. saria (banatu zuten):

- Zenbaki saritua: 4.892.
- Saria: urdaiazpikoa.

2. saria (saritua ez da agertu):

- Zenbaki saritua: 4.423.
- Saria: Txiribogan bi lagunentzako otordua.

#### Oharra:

2. zenbaki saridun errifaren jabeak dei dezala 676 453 176 (Joxerra) telefono zenbakira.

**ARANKA BERRIKUNTZAK**  
· Fatxadak estaldurak · Estalkien berritzaketak  
· Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa  
· Igeltzeritza orokorra  
**606 37 21 05 USURBIL**

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*  
**USURBILGO HORTZ KLINIKA**  
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA  
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22  
**943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL**

**URDAINTZI S.L.**  
Eraikuntzak  
urdaintzi@euskalnet.net | **649 43 54 75**  
IT-ak egiten dira | **943 36 72 64**  
**ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK**



Angel Biurrun taxi-gidariaren autoa, aireportura egindako irteera batean.



Joxe Etxaberen zortzi plazako taxia, landa-eremuan.

# Usurbilgo taxistei Donostian aritzeko aukera ireki zaie

Usurbilgo taxiek Donostian zerbitzua eskaintzeko aukera izango dute epe laburrera. Hala adostu dute Donostiako Udalak eta Foru Aldundiak. Usurbilgo taxistek ordea informazio gutxi jaso dute oraingoz. Ordu-tegiak oraindik ez dituztela definitu adierazi digute.

Donostiako Udalak administrazioen arteko hitzarmena onartu du inguruko hainbat udalerrirekin, eta tartean, nolaez Usurbilekin taxi zerbitzua zabaltzeko. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieita, Usurbil, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Errenteriako udalen artean lortutako hitzarmena da. Hala, Donostiako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari araudia bereziko eremu bat sortzeko eskatu dio taxien zerbitzuak emateko.

Donostian 308 taxi lizentzia daude egun eta bertako udalak lizentzia gehiagorik ez du eman-ga, baina hitzarmenak beste 118 taxik hirian zerbitzua eskaintzea ahalbidetuko du. Hori da hitzarmenean bat egin duten herrietako taxi-gidarien kopurua, hain zuzen ere.

Usurbilen bi taxista ditugu Angel Biurrun eta Joxe Etxabe. Laster, ordu-tegi eta egutegi jakinetan aukera izango dute

Donostiko lankideekin batera lan egiteko eta lan bolumen hori aritzeko: "Eskari handia dagoen momentuetan laguntzeko aukera da, bai eta turismoaren pisu hori aritzeko ere", esan du Angel Biurrun taxistak. Joxe Etxabe taxistari ez zaio neurria gehiegi gustatu: "Uste dut gauetan inork eraman nahi ez dituen mozkorrak gainerik kentzeko baino ez dutela neurri hau hartu nahi eta nik gauetz ez badut Usurbilen zerbitzurik eskaintzen, zertarako

joango naiz Donostiara gauetan inork eman nahi ez duen zerbitzu bat ematera?". Orain arte eta Donostiako taxi-gidarien lana baino ez zen hori: "Halako egunetan laguntza izatea ona da, Usurbilen Sagardo Eguna eta halakoetan gure kasuan bezala", dio Biurrunek.

Herri batzuek dagoeneko onartuta dituzte hitzarmenak, baina Usurbilek eta beste batzuek aurrerago onartuko dute eta eremuaren ezarpenaren lehen fasean sartuko dira.

**"ORDUTEGIAZ ETA EGUTEGIAZ EZ DUGU INOLAKO BERRIRIK JASO. LAN HANDIKO UNEETAN ARITZECO IZANGO DA"**

ANGEL BIURRUN

**"GAUETAN INORK ERAMAN NAHI EZ DITUEN MOZKORRAK GAINETIK KENTZECO NEURRI BAT DIRUDI"**

JOXE ETXABE

## Epe zehatzik ez

Akordioa lau urtez egongo da indarrean eta beste lau urtez luzatu ahal izango da. Egutegi eta ordu-tegi jakina izango du eremuaren aktibazioak. "Ordu-tegi eta egutegiaz ez dugu inolako berri-rik, baina lan bolumen handiko momentuetan izango dela suposatzen dugu, ez beti", esan du Biurrunek.

"Niri turistak edo bertakoak egunez eramatea lan polita iruditzen zait eta udako hila-bete batzuetan eta lasaitasunarekin gustura egingo nukeen lana da, baina uste dut hitzarmenaren zentzua beste bat dela, gauetako lan itsusi hori gainerik kentzeko modua, eta horrekin ez nago batere ados", adierazi digu Joxe Etxabek. Azken honek hitzarmenean ez du parte hartu nahi eta Usurbilgo Udalean ere bere "desadostasuna" erakutsi du.

Hitzartutako edozein udalerritako taxiek hiri zerbitzuak beste herri batean emateko aukera izango dute, bai eta herriartekoa ere, betiere eremua indarrean badago onartutako egutegiaren eta ordu-tegiaren arabera dagokion udalerrian. Zerbitzua emandako herriko taxien baldintzetan eskainiko dute.

**Antxeta**  
 TABERNA  
 egunero irekitzen dugu!  
 eguneko menua · asteburuko menua  
 oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...  
 paellak enkarguz!  
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

**BORDATXO**  
 taberna  
**Pintxo Bereziak**  
 943 37 10 42

**eskura**  
 elikadura eta dietetika aholkularitza  
 DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
 GIZENTASUNA, ELIKADURA  
 ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
**688 843 696**  
 Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

**ARRANDEGIA**  
**PELLO**  
 9:00-13:30  
 ASTEARTETIK LARUNBATERA  
**PUNTAPAX 7, 650 31 31 91**



## MERKATU TXIKIA

## EREBIZITZAK

## SALGAI

## ALOKAIRUAN

San Esteban kalean 31m<sup>2</sup> lokal bat alokairuan. Bulego edo kontsulta beza-la erabiltzeko egokia. 655735715.

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabilta. 627184674

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil. 617 771 303.

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Seat Arona Style salgai, 2 urte, 10.000km. Beti garajejan egon da. 620098748

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Andatza tabernan lan egiteko, zerbitzari eta sukalde laguntzaile/sukaldari baten beharrean gaude. Garrantzitsua esperientzia izatea. 670654272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Emakume bat, interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 624744514.

Interna bezala, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 641136135.

Usurbil edo inguruetan garbiketa lanak egiteko prest, 74745055

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Etxeko garbiketako lanetarako nahiz toki gehiago garbitzeko lan bila nabil. Harremanetarako, hona deitu: 632 909 058.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia askorekin, 695 18 41 79

Garbiketa lan orokorrak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko, lan bila nabil. 607455413

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. 687126811

## BESTELAKOAK

Pertsona helduentzako gurgildun aulkia salgai,berri-berria. Inovys II RG C markakoa. Oinak altuan jartzeko posizioa dauka eta burua eusteko soportea. Interesatuak deitu 666894283 telefono zenbakira (Ana).

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Gurutze Gorria	943 272 222
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 18	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 19	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 20	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 21	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loloia 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astelehena, 22	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteartea, 23	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Asteazkena, 24	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 25	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 27	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 28	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## ZORION AGURRAK



Abuztuaren 8rako belarriak prestatu Haizea! 7 urte! Egun ederra pasako dugu! Muxu asko famili guztiaren partez, bereziki Xune, Xai, Ruby, Indi, Roki, Flai, Bixi, Argi, Lau, Pipi eta Hiruren partez.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak, hurrengo astean argitaratuko ditugu. Adi: Hurrengo aldizkaria irailaren 6an plazaratuko dugu.

## HILDAKOAK

**Kontxi Arratibel Zarauz**  
Uztailaren 14an hil zen, 87 urterekin

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus


## OSTEGUNA 18

### AGINAGA NOAUA!-ren 1000. zenbakiaren ospakizuna

NOAUA!-ren 1000. zenbakiaren ospakizun ekitaldia.  
19:00 *Eliza Zaharra Elkargunean.*

### AGINAGA Maialen Lujanbioren emanaldia

Errezitaldi poetiko-bertso-performatibo-irakurri ikus-entzutekoa. Soila, hutsa, betea. Sarrerak: 6 eurotan usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA! Kultur Elkartearen bazkideek 4 eurotan, baina soilik NOAUA!ren egoitzan eskuragarri.  
19:30 *Eliza Zaharra Elkargunean.*



Ostegun honetan Aginagako Eliza Zaharrean arituko da. 19:30ean hasiko da saioa.

## Maialen Lujanbioren emanaldia Aginagan

Maialen Lujanbio bertsolariak *rr-6-erre(AH)ala* emanaldia eskainiko du ostegun honetan Aginagako Eliza Zaharrean.

Bakarkako saio hauetan, lehengai hizkuntza da, erregistro desberdinetan erabiliko duena; hotsetan, testu idatzietan, hitz esanetan, bertsoetan...

Soinuek eta pantailako proiektzioek lagunduko dute emanaldian interakzioa sor-

tzen. Aurreko 'rr' aldaeren antzera, puri-purian diren gaiak izango ditu mintzagai.

### Uztailak 18 osteguna

- 19:30ean, Aginagako Eliza Zaharra Elkargunean.
- Sarrerak: 6 euro usurbilkultura.eus plataforman. NOAUA-ko bazkideek 4 eurotan, baina soilik NOAUAren egoitzan. Antolatzailea: NOAUA! K.E.

## Organo Zikloari lotutako kontzertua

Abuztu osoan ospatuko den Donostiako 85. Musika Hamabostaldiaren baitan Organo Zikloa antolatute, musika instrumentu honi lotutako kontzertu sorta. Emanaldietako bat, ohi bezala, Usurbilen egingo da, abuztuaren 11n arratsaldeko 20:00etan Salvatore elizan. Susanne Kujalak (organoa) eta Veli Kujalak (akordeoia) bikotearen kontzertua programatu dute, "Franck, V. Kujala, Pohjola eta Piazzolla-ren lanak" eskainiko dituzte. Emanaldirako sarrera doakoa izango da. Musika hamabostaldi honi buruzko informazio gehiago eta egitarau osoa, quincenamusi-cal.eus atarian eskura dezakezue.



Susanne eta Veli Kujala.

## LARUNBATA 20

### USURBIL Floxbin taldearen kontzertua

Luzaroan oholzetatik kanpo egon ondoren, bueltan da Usurbilgo metal taldea. Sarrera, doan.  
20:00 *Sutegin.*

## ASTEAZKENA 24

### ZUBIETA Jaien hasiera

19:00 Jaien hasiera: Txupinazoa eta buruhandiak. Jarraian, txoznen irekiera Elene eta Anuek girotua. 21:00 Herri afaria, Zubietako Pilota Elkartearen eskutik. Ondoren, Itzal taldearekin dantzaldia.  
*Egitarau osoa 11. orrialdean.*

## Floxbin taldearen itzulera

Luzaroan kontzerturik eskaini gabe izan dira. Ezustean, zuzeneko bat iragarri dute larunbat honetarako. Sute-gin arituko dira, arratsaldeko 20:00etan hasita. Usurbilgo metal taldearen kontzerturako sarrera doakoa izango da.

**Inaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ARTZABAL**  
BASERRIA • JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

• EGUNEKO MENUA  
• KARTA  
• RAZIOAK  
• HANBURGESAK  
• BOKATAK

**Otar-Goxo**  
Elizagaia  
Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



# ANORGA TXIBI S.L

## KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!  
Perfil bertikalik gabe!!  
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!  
Aukera zabalak!



·komertzial instalazioak ·beira bikoitza ·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak  
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

# Ondo pasa jaietan

